



Alferrik idatziko nuke kolaborazio bat [IFTTT](#) (*IF This Then That*) erramintaren inguruan. Duela urtebete [Joxe Teknopatak bere webgunean idatzitakoarekin](#) argi baino argiago gelditu zelako gaia: gauzeekin hitz egiten duten gauzak errezeta batzuk osatzeko. Gauza batzuek aldagaiak jartzen dituzte. “Temperatura gradutan lortu”. Beste gauza batzuek ekintzak gauzatzen dituzte. “Erradiadore elektrikoa piztu”. Eta IFTTT-ek errezeta edo araua osatzen du aurreko bi gauza konektatuekin. “Temperatura 17º baino baxuagoa bada erradiadore elektrikoa piztu”.

Adibidea ez da kasualitatea. IFTTT delakoa web aplikazioak konektatzeko aukerak eskaintzen hasi bazen ere (Joxe berak Twitter eta Google Drive konektatzen ditu [bideo honetan](#)), gaur egun baina, gauzen internet sonatuaren olatuarekin mundu fisikoarekin elkar eragiteko aparatuekin konpatiblea bihurtu da. Ikus dezagun zein apairailutaz nabilen etxean montatu dudan termostatoaren adibidearekin.

Temperatura gradutan lortu

Aldagai fisikoak lortzeko sensoreak behar dira eta, batez ere, sensore horiek sarera eramango dituen txartel elektronikoa txiki bat. Hori da zehazki [Particle](#) txartela: etxeko wifira konektatzen da eta nahi dugun sentsorea jarrita (temperatura, hezetasuna, argia... guztiak aparte erosi beharrekoak) informazioa IFTTT-ra konektatu dezakegu. Muntaiak osatzeko eskema elektriko erraz bat eta programa oso sinple bat bakarrik behar dira. Eta oso sinplea diot [internetik kopiatu eta itsatsi daitekeelako](#).

Erradiadore elektrikoa piztu

Ekintzak egiteko zer hobe eta etengailu bat baino. Edo hobeto esanda, etengailu bezala funtzionatzen duen entxufe adimentsu bat. Luistxok duela aste pare bat Euskadi Irratian erakutsitakoaren berdina, [Wemo Belkim etxekoa](#).

Enfokatu zuenean, nik klik egin mugikorrean, eta etxeko berogailua, ta-txan! isiotu zen! [@jonartano](#) da lekuko! pic.twitter.com/PTMsQAdbrb

— Luistxo Fernandez (@luistxo) [February 22, 2016](#)

Aurrekoa bezala, entxufea wifira konektatzen da, eta hemen bai, bestelako inolako gehigarrik gabe IFTTT-ra konektatu dezakegu.

Temperatura 17º baino baxuagoa bada erradiadore elektrikoa piztu

Eta amaitzeko IFTTT-en errezeta osatu. Klik pare bat eta listo.





Sarri kritikatzten dugu domotika: “Ez da beharrezkoa”, “Ideia ondo dago baina oraindik aplikazio domotikoak ez daude lortuta”, “Sekuritate aldetik zer? Hacker batek labea edo indukzioa pizten badit ni konturatu gabe? Akabo!”. Baina, gauzak norberak egiten dituenean ezin etxekalte hitz egin. Norberak egindako domotikarena izan daiteke etorkizun laburreko domotikaren etorkizun bakarretakoa.

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)
- [Click to email this to a friend \(Opens in new window\)](#)